

## Igartubeitin denboran atzera

Erdi Aroko baserria da Igartubeiti, museo bihurtua Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako zaharberritze lanei esker, eta ondoan interpretazio zentro bat ere baduena. Abuzturako, Baserria eta bere ingurunea tailerra antolatu du Igartubeiti baserriko Interpretazio Zentroak gaztetxoentzat. Horrelako baserri batean bizirik irauten saiatu beharko dute, eta ez zaie oso erraza izango, gauzak asko aldatu baitira.

XVI. mende erdialdean eraiki zuten Igartubeiti baserria, Ezkio- Itsason, Anduaga aldeko Kizkitza mendiaren magalean. Garai hartakoak ditu egurrezko egitura eta barruko sagardo dolare handia. Euskal baserrien urrezko aroaren adibide nabarmena da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 25 urte baino gehiago daramatza euskal ondarea lehengoratzeko lanetan, eta 1992. urtean erosi zuen Igartubeiti. Oso gaizki zegoen, eta zaharberritu egin dute.

Duela lau mende zuen itxura ematea lortu badute ere, zailagoa da garai hartako bizimodua eta istoriak berritzea. Orain arteko lan guztia ere ez da erraza izan, ez baitago orduko deskribapen originalik, eta garai hartako tresna eta objektu gutxi gelditzen baitziren. Baina ikerkuntza lan sakon bat izan da atzean, eta, horrela, garai hartako bizimodua, egoera ekonomikoa, ohiturak eta abar nolakoak ziren aztertuz, baserrian bizi zirenen bizimoduaren interpretazio bat egitea lortu dute.

' BASERRIA ETA BERE INGURUNEA '

Noiz. Abuztu osoan, asteartetik igandera.

Non. Igartubeiti baserriko Interpretazio Zentroan, Ezkio-Itsason.